elizalde INSTITUTUA

# ANTOLAKUNTZA JARDUEREN ARAUDIA

# 0.- Sarrera

Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuak (IHP) eskola-komunitateko sektoreek onartutako hezkuntza-aukera adierazten du; hain zuzen ere, ikastetxearen jardueren bidez lortu nahi diren oinarrizko baloreak eta helburuak identifikatuko ditu. Elizalde BHIko IHPa berritua OOGk 2016. urtean onartu zuen. Horrez geroztik, hainbat berrikuntza izan ditu, eguneratze eta berritzearen alde. Hori kontuan izanik, AJA (Antolakuntza Jardueren Araudia) Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren zehaztapen bat da. Bertan, eskola-komunitateko kolektibo desberdinen eginkizuna, ikastetxearen oinarrizko egitura eta bertako funtzionamenduaren printzipio orokorrak zehaztea da gure helburua.

Ikastetxearen asmoa ez da behin betiko dokumentu bat egitea, errealitatea aldakorra delako, baita heziketa beharrak ere. Horregatik ikastetxeko AJA
AJA-k izandako azken eguneratzea 2018an izan da. Araudi horrek ezin du izan xehetasun eta aldagai guztiak jasoko dituen dokumentu zurruna, etengabeko ekarpenak jasoko dituen ikastetxearen hezkuntza ardatz nagusiak islatuko dituen oinarrizko printzipio eta arauak baizik.

AJAri zor zaion garrantzia emateko ikasturte hasierako bileretan ezagutzera emango da gurasoei eta ikaslei.

Elizalde BHIko AJA sortu, burutu eta ulertzeko printzipio orokor hauek izango dira ardatz nagusiak:



1.- Ikastetxearen tamaina, giza baliabideak eta beharrak kontuan hartuko dituen partaidetza eta lankidetza ahalbidera dezakeen gutxienezko egitura sortzea. Beti ere, eskola komunitateko kide guztien inplikazioa lortu eta harremanak sustatzeko baliagarri izateko asmoz.

2.- Eskola komunitateko sektore guztiak iritzidun pertsona bezala aintzat hartu harreman komunikatiboak sustatzeko. Era berean, bakoitzaren esparru, ardura eta konpetentzia ondo bereizi eta elkarren osagarri izan daitezen.

3.- Ikastetxearen zein irakasleen autonomia antolamendu eta kudeaketari aurre egin, ikastetxeko behar, nortasun, berezitasun eta testuinguruari erantzun behar zaielako, azken finean.

4.- Ikastetxeko antolamenduak hezkuntza-prozesu osoari, intelektualari, afektibo-emozionalari, psiko-sozialari, fisiko-sexualari, hau da, irakaskuntza inklusibo eta integralari garrantzia eman, ez emaitza akademikoei soilik.

5.- Elkarbizitzarako eta gatazkak konpontzeko malgutasuna eta irmotasuna uztartu, sen ona erabiltzea giza lege.

6.- Sor daitezkeen arazoak konpontzeko honako jarraibideak hartu oinarritzat: arazoa ezagutu, informazioa alderatu eta erabakia dagokien lekuan hartu, beti ere, neurri hezitzaileenak bilatu eta aurkitu asmoz.

7.- Hemen zehazten ez diren gaietan 210/2008 Dekretua (Ikasleen eskubideak eta betebeharrei buruzkoa) aplikatuko da.

## 1.- Ikasleen eskubideak

1. Beren nortasunaren garapen osoa emango dien heziketa integrala jasotzeko eskubidea dute ikasleek.

*Los alumnos y alumnas tienen derecho a recibir una formación integral que les permita conseguir el pleno desarrollo de su personalidad.*

2. Ikasleek adeitasunez entzun eta harrera ona izatearen eskubidea dute.

*Los alumnos y alumnas tienen derecho a ser escuchados con atención y a ser atendidos debidamente.*



3. Beren kontzientzia-askatasuna eta ideologi-, erlijio-, eta morala uste sendoak errespeta dakizkiela eskatzeko eskubidea dute ikasleek.

*Los alumnos y alumnas tienen derecho a que se respete su libertad de conciencia y sus convicciones ideológicas, religiosas, éticas y mora1es.*

4. Beren osotasun fisiko, psikiko eta morala eta bere duintasun pertsonalak errespetatuak izateko eskubidea dute ikasle guztiek eta inola ere ezingo zaie tratu laidagarri edo umiliagarririk eman, ez eta tratu txar fisiko edo morala duten zigorrik eman ere.

*Todos los alumnos y alumnas tienen derecho a que se respete su integridad fisica, psíquica y moral y su dignidad personal, no pudiendo ser objeto en ningún caso de tratos vejatorios o degradantes, ni de sanciones que impliquen maltrato fisico o moral.*

5. Ebaluaziorako zein irizpide egongo den eta ikasturte edo maila bakoitzean gainditu beharreko gutxienezko helburuak ezagutzeko eskubidea dute ikasleek *eta ikasturtearen hasieran jakinaraziko zaie*.

*Los alumnos y alumnas tienen derecho a conocer los criterios de evaluación y los objetivos mínimos que deben ser superados en cada curso escolar y los mismos les serán comunidados al principio del curso.*

6. Jarduera akademikoen eta ebaluazio partzialen edo azkenekoen kalifikazioei buruzko argibideak eskatzeko eskubidea dute ikasleek edo beren gurasoek edo zilegizko arduradunek.

*Los alumnos y alumnas o sus padres/madres o responsables legales tienen derecho a solicitar aclaraciones a sus profesores y profesoras respecto a las calificaciones de actividades académicas o de evaluaciones parciales o finales.*

7. Ikasleek edo zilegizko ordezkariek aipatutako kalifikazioei buruz erreklamazioak egiteko eskubidea dute:

a) Behin nota argitara eta ezagutzera eman eta gero, nota horri eskakizunak egiteko 48 orduko epea izango dute ikasleek.

b) Lehenengoz, edozein eskakizun dagokion irakasleari aurkeztu behar zaio. Ikaslea gustura geratzen ez baldin bada, ondorengo urrats hauek eman beharko ditu: eskakizunak tutoreari egin beharko zaizkio eta horrek dagokion sailean aurkeztuko ditu eta horrek hartuko ditu erabakiak.

*Los alumnos/as o sus representantes legales tienen derecho a reclamar las citadas calificaciones:*

*a) Una vez dadas a conocer las notas el/la alumno/a tiene 48 horas para hacer la reclamación.*

*b) En principio cualquier reclamación debe presentarse al profesor/a que corresponda. En caso de que el/la alumno/a no quedase convencido debe seguir los siguientes pasos: Hacer la reclamación al tutor/a, el cual se dirigirá al departamento correspondiente donde se tomará la decisión.*

8. Bere gaitasun, ezagutza eta ahalmenen arabera ikasketa orientabidea hartzeko eskubidea dute ikasleek.

*Los alumnos y alumnas tienen derecho a recibir orientación escolar de acuerdo con sus aptitudes, conocimientos y capacidades.*



9. Ikasleek Eskola Kontseiluan legeak onartzen duen ordezkaritza izateko eskubidea dute.

*Tal y como dice la ley, Los alumnos y alumnas tienen derecho a representación en el Consejo Escolar.*

10. Greba eskubidea:

I. Greba deialdia egonez gero, DBH3 eta DBH4ko ikasleek dute egiteko eskubidea.

*En caso de convocatoria de huelga el alumnado de DBH3 y DBH4 tienen derecho a realizarla.*

II. Eskubide hori gauzatu nahi izanez gero, hauek dira eman beharreko urratsak:

*Para ejercitar dicho derecho, estos son los pasos a dar:*

a) Taldeko (gelako) ordezkariak zuzendariari biltzeko eta bozkatzeko baimena eskatuko dio idatzi baten bitartez. Bertan deialdiaren nondik norakoak azaldu beharko dira zehatz mehatz..

*El/la representante/a del grupo le pedirá al director/a del centro, por escrito, permiso para reunirse y llevar a cabo la votación. En dicho escrito se deberá adjuntar la informacion relativa a la convocatoria de huelga.*

b) zuzendariak azalduko dio ordezkariari zein ordutan izango den eta bozkatze horren iraupena.

*El director/a le indicará al/la representante del grupo en qué momento se realizará la votación y cuánto durará.*

c) bozkaketarako bilera greba deialdiaren data baina gutxienez bi egun lehenago eskatu eta egin beharko da.

*La reunión para la votación se deberá realizar con dos días de antelación por lo menos con respecto a la fecha de convocatoria de la huelga.*

d) bozkaketaren emaitzak, idatziz, zuzendariari pasako zaizkio.

*Los resultados de la votacón se le pasarán por escrito al/la director/a del centro.*

e) greba ikastetxearen esparruaren barruan bada, ikasleek ezin dute ikastetxeko eremutik atera, eta ez dute gurasoen edo legezko ordezkarien baimena behar.

*Si la huelga se va a realizar dentro del recinto escolar, los alumnos y alumnas no pueden salir del centro, y no necesitan la autorización de padres/madres o responsables legales.*

f) grebak ikastetxeko esparrutik ateratzea suposatzen badu ikasleek gurasoen edo legezko ordezkarien baimen idatzia ekarri beharko dute. Idazki horretan, ikastetxetik ateratzeko baimena zer ordutan ematea eskatzen den adierazi beharko da.

*Si la huelga supone salir del centro escolar el alumnado necesita el permiso de padres/madres o responsables legales. En dicho escrito se señalará las horas de autorización para salir del centro.*



g) ikastetxean grebarako bozkaketak egiten ez badira, baina ikasleek gurasoen baimen pertsonala baldin badute, zuzendaritzan entregatu beharko dute baimen hori greba egin ahal izateko. Ez dago greba egiterik etxeko baimena “a posteriori” ekartzen bada. Norbanako baimen horretan ere gurasoek edo ordezkari legalek ikastetxetik ateratzeko baimena zer ordutan ematea eskatzen den adierazi beharko dute.

*Si en el centro escolar no se realizaran votaciones ante la convocatoria de huelga, y los alumnos/as tienen el permiso individual de padres/madres o responsables legales, deberán entregar esa autorización en dirección par poder ejercitar su derecho a huelga. No se puede realizar huelga con una autorización “a posteriori”. En dicho escrito se señalará las horas de autorización para salir del centro.*

## 2.- Ikasleen betebeharrak

1. Eskola-elkarteko gainerako kideak eskubide eta askatasunez baliatu ahal izatea errespetatu beharra dute ikasleek. *(Bizikidetzaren aurkako jokabidea)*

*Los alumnos y alumnas tienen el deber de respetar el ejercicio de los derechos y libertades del resto de los miembros de la Comunidad Educativa (Conducta contraria a la convivencia).*

2.- Ikastetxeko Hekuntza Proiektua (IHP) eta Antolakuntza Jardueren Araudia (AJA) errespetatu eta bete behar dute ikasleek. *(Bizikidetzaren aurkako jokabidea)*

*Los alumnos y alumnas deben respetar y cumplir el Proyecto Educativo de Centro (PEC) así como el Reglamento de Organización y Funcionamiento (ROF) (Conducta contraria a la convivencia).*

3.- Klasera joatea, eskola-egutegian erabakitako ekintzetan parte hartzea eta jarritako ordutegiak errespetatzea beharrezkoa da. Edozein arrazoirengatik ikasleei etortzea ezinezkoa balitzaie, ikasleen tutore legalek hutsegite hori justifikatu beharko dute horretarako ikastetxeak duen agiria erabiliz. *(Bizikidetzaren aurkako jokabidea)*

*Los alumnos y alumnas deben asistir a clase, participar en las actividades acordadas en el calendario escolar y respetar los horarios establecidos. Si por cualquier causa el /la alumn@ no pudiera asistir los tutores legales deberán justificar la falta cumplimentando el impreso correspondiente. (Conducta contraria a la convivencia)*

4.- Irakas eremu guztietan ematen diren azalpenei jaramon egitea, proposatzen diren ikasketa jarraibideak txukun eta ondo egitea eta lanerako beharrezkoak diren materialak ekartzea beharrezkoa da. *(Jokabide desegokia)*

Los alumnos y alumnas deben prestar atención a las explicaciones dadas en cualquier ámbito educativo, realizar las actividades didácticas encomendadas de manera adecuada y traer el material escolar necesario. (Conducta inadecuada)

5.- Irakas eremu guztietan azalpenak eta lan giroa eragozten dituzten jarrerak ez dira onartuko. *(Jokabide desegokia)*

*No se aceptarán,en ningún ámbito educativo, actitudes que entorpezcan las explicaciones y el ambiente de trabajo necesarios en cualquier actividad escolar .(Conducta inadecuada)*

6. Irakaslea bere eskola-ordua ematera agertzen ez denean, ikasleak gelan izango dira zaintza-irakaslearen esanetara *(Jokabide desegokia).*

Cuando el/la profesor/a no aparece en el momento de empezar la clase, Los alumnos y alumnas permanecerán dentro de la clase, y se encargará de ellos/as el/la profesor/a de guardia (Conducta inadecuada).

7. Eskolako ordutegian ikasleek ezin dute institututik irten. Aipatutako ordutegian (Jangelako orduak barne) ikastetxeko esparrutik ateratzeko aldez aurretik gurasoek arrazoitu eta sinatutako baimen idatzia eman behar dute . Irten behar izanez gero tutoreari, zaintzako irakasleari edo zuzendaritzakoei jakinarazi. (*Bizikidetzaren aurkako jokabidea*).

*Los alumnos y alumnas no pueden salir del Instituto durante el horario escolar. En ese periodo (incluido el Comedor), para salir del recinto es necesario aportar un permiso razonado de los alumnos*

*y alumnas firmado por parte de los/ padres-madres o tutores legales. En todos los casos es necesario comunicarlo previamente al tutor/a , al profespr/a de guardia o a la dirección del centro. (Conducta contraria a la convivencia).*

8. Eguerdian jangelan gelditzen direnek institutuko arauak bete behar dituzte. Jangelan gelditzen ez direnak gurasoen edo arduradunen ardurapean egongo dira eta institutuko arauak betetzen ez badituzte ezin dute bertan gelditu *(Jokabide desegokia).*

*El alumnado que se queden en el comedor está obligado a cumplir las normas del Instituto. Los/las que van a comer a casa están bajo la responsabilidad de sus padres-madres o responsables, y durante ese tiempo para poder estar en el patio del centro tienen que cumplir las normas establecidas (Conducta inadecuada).*

9. Apurketak eta erabilpen desegokiak:

9.1 Ikasle batek Institutuan zerbait apurtu edo erabilpen desegoki bat burutuz gero kaltea norainokoa izan den aztertuko da. Nahita egindakoa bada edo erabilpen txarragatik izan bada ikasleak kargu hartuko du (Bizikidetzaren aurkako jokabidea).

*Cuando un/a alumno/a haya roto o utilizado algo indebidamente en el Instituto se analizarán las circunstancias. Si se produce a propósito, o por un uso indebido, el/la alumno/a asumirá la responsabilidad. (Conducta contraria a la convivencia) .*

9.2 Ikasle batek Institutuak antolatzen duen edozein ekintza edo irteeretan zerbait apurtu edo erabilpen desegoki bat burutuz gero, kaltea norainokoa izan den aztertuko da. Nahita egindakoa bada edo erabilpen txarragatik izan bada ikasleak kargu hartuko du (Bizikidetzaren aurkako jokabidea).

*Cuando un/a alumno/a haya roto o utilizado algo indebidamente en las actividades o salidad programadas por el Instituto se analizarán las circunstancias. Si se produce a propósito, o por un uso indebido, el/la alumno/a asumirá la responsabilidad (Conducta contraria a la convivencia) .*

9.3 Aurreko bi egoeretan, egilea azaltzen ez den bitartean, ardura inplikaturik egon daitezkeen ikasle guztiei leporatu ahal izango zaie (Bizikidetzaren aurkako jokabidea).

*En las dos situaciones menciondas anteriormente la responsabilidad podrá reacer sobre el resto de los alumnos y alumnas si no aparece el/la autor/a (Conducta contraria a la convivencia).*

10. Lapurretak sortzen direnean:

10.1 Ikastetxean edo ikastetxeak antolatutako edozein ekintzatan, ikasle bakoitza bere ondasunen jabe izango da eta erantzukizuna norberarena ere bada.

*En cualquier actividad organizada en o por el centro cada alumno/a es responsable de su material y pertenencias.*

10.2. Ikastetxean eman beharreko urratsak eman ondoren, lapurtutakoa, desagertutakoa edo utzikeriaren ondorioz galdutakoa ez bada berreskuratzen, galdutzat emango da.

*Una vez que el centro haya procedido a aplicar el protocolo correspondiente y el resultado sea infructuoso, se dará por perdido cualquier material o pertenencia que por hurto, extravío o dejadez haya desaparecido.*



Manuel Lekuona etorbidea z/g 20180 Oiartzun ☏ 943899283 email: elizldebhi@elizalde.info

10.3 Lapurretaren erantzulea/ak ezaguna/ak denean/direnean araudiaren araberako neurriak hartuko dira. (Bizikidetzaren aurkako jokabidea / Bizikidetzan kalte larriak eragiten ditu).

*Una vez conocida la autoría del hurto se aplicarán las medidas pertinentes. (Conducta contraria a la convivencia / Conducta gravemente perjudicial).*

11. Giroa hobetzeko:

11.1 Ikasleak geletan zein pasilotan behar bezala ibiliko dira, garrasi zein jokoak saihestuz (Jokabide desegokia).

*Los alumnos y alumnas tanto en las clases como en el pasillo se comportarán debidamente: no está permitido ni jugar ni gritar (Conducta inadecuada).*

11.2 Gelek, komunek eta gainontzeko esparruek garbi eta txukun egon behar dute. Ikasle bakoitza berari dagozkion baliabidez arduratuko da: mahai, aulki, armairua, apalak ... (Jokabide desegokia).

*Las aulas, los servicios y el resto de los espacios hay que mantenerlos limpios . Cada alumno/a se responsabilizará de sus materiales: su mesa. silla, armario, estantería,... (Conducta inadecuada).*

11.3 Klase orduetan komunera joateko dagoen arau propioa beteko da. Arau hori geletan ikusgai egongo da. (Jokabide desegokia).

*Se aplicará la norma específica para salir al servico durante el horario lectivo. Dicha norma estará expuesta en las aulas. (Conducta inadecuada).*



11.4 Jolasgaraietako ezarrita dauden arau propioak beteko dira. Arau horiek geletan ikusgai egongo dira. (Jokabide desegokia).

*Se aplicará el reglamento específico durante las horas de recreo. Dichas normas estarán expuestas en las aulas. (Conducta inadecuada).*

11.5 Sakelako telefonoa ezin da institutuko eremuetan, jangelan, kiroldegi barnean eta ikastetxeak antolatutako kanpoko ekintzetan erabili. Salbuespena: erabilera pedagogikorako baimen berezia dagokion irakasleak ematen duenean.
Ikasle bat harrapatuz gero irakasleak sakelako telefonoa hartu eta zuzendaritzan utziko du. Bahitzen den mugikorra, hurrengo egunetik aurrera itzuliko da. Gurasoek edo legezko tutoreek etorri behar dute bila. Ezin badute familiako adin nagusiko bat ahal da bila etorri, kasu honetan, jasotze-agiria sinatu beharko du. Ostiralean gertatzen denean astelehenean itzuliko da. Institutua ez da arduratzen ez desagerpenekin ez erabilera desegokiekin. (Bizikidetzaren aurkako jokabidea).

*No puede utilizarse el teléfono movíl dentro del recinto del Instituto, ni en el comedor escolar ni en el polideportivo, ni en las actividades organizadas por el Instituto. Excepción: cuando el correspondiente profesor o profesora de una autorización expresa para su uso en alguna actividad pedagógica.*
*En el caso de sorprender algún alumno/a utilizando el telefono movíl, el profesorado lo recogerá y se guardará en Dirección. El teléfono requisado se devolverá a partir del siguiente día. Deberá venir a recogerlo el padre, la madre o el tutor/a legal. En caso de no poder hacerlo, podrá recogerlo un familiar mayor de edad; en este último caso, deberá firmar un*

*recibo de recogida. Si es requisado en viernes, no se devolverá hasta el siguiente lunes. El Instituto no se hace responsable de su pérdida ni de su ulilización inadecuada (Conducta contraria a la convivencia).*

## 1.- Ikastetxeak antolatutako kanpoko ekintzak

1. Ikastetxeak barneko elkarbizitza hobetzeko asmoz hezkuntzan lagungarriak diren zenbait ekintza antolatzen ditu. Ekintza horiek ikastetxeak eta mintegiek lantzen dituzten helburuak sustatzeko egiten dira. Halakoetan, ezbeharrak eta arau hausteak suertatu ohi dira .

*El centro organiza diversas actividades dentro del ámbito educativo que, por una parte ayudan a mejorar la convivencia y por otra trabajan los objetivos generales tanto del centro como de los distintos departamentos. Dichas actividades, a veces, no suelen estar exentas de ciertos incidentes, que son los que mediante esta normativa se pretenden solucionar.*

2. Ikasle guztiek dute ikastetxeak antolatzen dituen ekintza osagarri eta irteeretan parte hartzeko eskubidea. Hala ere, ikasle batek ikastetxeak antolatzen dituen ekintzetan, arestian aipatutakoak, parte hartzeko eskubidea galduko du bere jarrera desegokien pilaketa edota larritasunaren ondorioz.

*El alumnado tiene derecho a participar en las actividades complementarias y salidas que organiza el centro. No obstante, un/a alumno/a puede perder dicho derecho debido a la acumulación de conductas inadecuadas o a la gravedad de su conducta.*



3. Ikastetxearen kanpoko ekintza eta irteeretan arduradun (irakasle edota laguntzaile) talde bat izanen da eta, ikasleen hobe beharrez, ekintzen sustatzaile eta koordinatzaile nagusiak dira. Ikasleek irakasle edota talde honen aholku, gomendio eta aginduak jarraitu behar dituzte.

*Cada una de estas actividades y salidas escolares tendrá un grupo de profesores y/o organizadores responsable, que es el promotor y coordinador principal de las mismas. El alumnado deberá seguir los consejos, recomendaciones y directrices dados por el grupo organizador.*

4. Irteera edo kanpoko ekintza burutzeko ikasleek ekintza horren helburu, egitarau eta arauen berri jasoko dute.

*El alumnado conocerá los objetivos, el plan y las normas a seguir en cada una de las salidas y actividades escolares.*

5. Inplizituki eta esplizituki azaldu eta jasotako arauak beteko dira, gizalegea oinarritzat harturik.

*Se cumplirán las normas que explícita o implícitamente se sugieran u ordenen, procediendo de manera correcta y responsable.*

6. Ezbeharren bat gertatuz gero, arduradunen taldeak zer gertatu den ikertuko du eta horren arabera neurriak hartuko ditu arau hauen arabera. Nahiz eta gertaera ikastetxetik kanpo izan ikastetxean dauden arauak aplikatuko dira.

*En caso de ocurrir algún incidente adverso provocado por parte del alumnado, el grupo o persona responsable analizará lo ocurrido y tomará medidas siguiendo esta normativa. Aunque el hecho ocurra fuera del centro se aplicarán las mismas normas.*

7. Egoeraren arabera, arduradunek behin-behineko neurriak jartzeko ahalmena izanen dute. Neurri horiek irteera edo ekitaldia burutzen den bitartean mantenduko dira eta birbegiratuko dituzte behin ikastetxera bueltatu ondoren. Posible da neurriak aurrerago antolatzen diren irteera edo ikastetxez kanpoko ekitaldietan eragina izatea.

*Dependiendo de la situación los responsables podrán tomar medidas provisionales que se mantendrán mientras dure la actividad y se revisarán al regresar al centro. Puede ser que las medidas adoptadas afecten a posteriores salidas y actividades fuera del recinto escolar.*

8. Ezbeharrak arautegiak markatzen duen arabera, jokabide desegokia, bizikidetzaren aurkako jokabidea eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituen jokabidea izan ahal dira eta horrela sailkatuko dituzte arduradunek ikertutakoaren arabera. Sailkapen horren ondorioz jarriko dituzte neurriak.

*Tal y como especifican las normas, las faltas se clasifican en conducta inadecuada, conducta contraria a la convivencia y conducta gravemente perjudicial; de esta misma manera serán clasificadas por los responsables según la gravedad de los incidentes.*

## 4.- Gurasoak



1. Hezkuntza arloan guraso edo zilegizko ordezkari, ikasle eta irakasleen elkarlana garrantzitsua denez, denen inplikazioa beharrezkoa da.

*Debido a que en la educación el trabajo conjunto de padres/madres o representantes legales, alumn@s y profesore@s es muy importante, consideramos imprescindible la implicación de tod@s.*

2. Tutorea da eskola eta familia uztartzeko pertsona egokiena. Eskaerak, arazoak, zalantzak ... berak bideratuko ditu. Tutorearekin hitz egiteko aldez aurretik hitzordua adostuko da idatziz edo telefonoz.

*El/la tutor/a es la persona más adecuada para vincular la familia y la escuela. Los problemas, peticiones, dudas que tengan podrán tratarlos con él/ella. Para hablar con ellos/as acordarán la hora previamente por escrito o por teléfono.*

3. Kurtsoan zehar, gutxienez bi aldiz, tutorea gurasoengana zuzenduko da ikasleari buruz hitz egiteko. Halaber, beharra balego, irakasleak zein gurasoak harremanetan jarriko dira hitz ordua adostuz.

*Durante el curso el/la tutor/a se dirigirá a los/as padres-madres o representantes legales por lo menos dos veces para hablar sobre cada alumno/a. De todas maneras, en caso de necesidad podrán hablar con el profesorado cuando lo crean conveniente.*

4. Ikasleak motibatzeko nahiz lan ohiturak lantzeko etxeko lana eta gurasoen inplikazioa funtsezkoa da. Hau indartzeko gurasoen laguntza edo arreta beharrezkoa da: ikasleen plangintza aztertuz, ahaleginak bultzatuz, egindakoak erakutsaraziz....

*Tanto para motivar a los alumnos y alumnas como para mejorar el hábito de trabajo es importante la implicación de l@s padres/madres en la planificación de los estudios, en la estimulación del esfuerzo,...*

5. Ikastea, jolastea, ondo pasatzea ondo dago; baita garbitasuna, elikadura eta lo ohitura onak barneratzea ere. Besteak beste, horregatik ikasleek beharrezkoa dute Gorputz Hezkuntzako klasea bukatu ondoren dutxatzea.

*Aprender, jugar.y pasarlo bien está bien y es necesario. Igualmente la higiene, la alimentación equilibrada y dormir lo suficiente. Por ello, entre otras razones, es necesario ducharse después de las clases de Educación Física.*

6. Ikastetxera etortzea behar-beharrezkoa da, etapa honetako ezaugarri bat derrigorrezkoa izatea baita. Edozein arrazoiengatik ikasleei etortzea edo puntual iristea ezinezkoa balitzaie, abisua idatzita bidali arrazoia emanez, aldez aurretik, ahal izanez gero. Justifikatu gabeko bertaratze-eta puntualtasun-hutsegiteak ikastetxeak sortutako idazkiaren bidez arrazoitu behar dira, paperez derrigorrez, ikaslea itzuli ondoren, bi eguneko epe barruan. Inikaren bidez tutoreari jakinarazi ahal zaio.

*La asistencia es obligatoria. Si por cualquier causa el/la alumno/a no pudiera asistir los/las padres-madres lo justificarán con una nota escrita explicando las razones, a poder ser por anticipado. Las faltas de asistencia o puntualidad deben ser justificadas obligatoriamente mediante el modelo de justificante escrito del Centro, a más tardar antes de dos dias después de la incorporación del alumno/a. Se puede informar al tutor o tutora mediante Inika.*



7. Absentismoa: Ikastetxera ez-bertaratzeak direla eta, “eskola-absentismo” tipifikazioa izango duen ikasleak ez du ebaluazio positiborik izango.

*Absentismo: El alumno o alumna que tenga tipificadas sus faltas de asistencia como “absentismo escolar” no tendrá ebalución positiva.*

8. Jangelan geratzen diren ikasleek bazkaldu ondoren ikastetxeko esparruan/ra egon/ itzuli beharko dute. Salbuespen gisa, guraso edo tutore legalen baimena idatzia duten 3. edo 4. DBHko ikasleek edozein astelehen, edo/eta astearte edo/eta ostegunetako bazkalostean kanpoan ibili ahal izango dute. Eskola-eremutik kanpo ibiliko direnetan gurasoen ardurapean daude ikasleak.
Hala ere, gurasoen baimenaz askatasun hori duten ikasleek eskola-eremuan gelditzea erabakitzen dutenean, bertako arauak bete beharko dituzte eta zaintzaileen aginduetara egongo dira. Legeak halakoetan agindu bezala, eskola ardurapean daude ikasleak. Halaber, eta betiko moduan, liburutegian lanean aritzeko aukera izaten jarraituko dute bertako irakaslearen esanetara.

*El alumnado que utiliza el servicio del comedor debe permanecer/volver en/al recinto escolar. Excepcionalmente el alumnado de 3º y 4º de ESO que tenga permiso escrito de sus padres o tutores legales podrá permanecer fuera del recinto escolar después de comer cualquier lunes, o/y martes o/y jueves. Los días que esté fuera del recinto escolar el/la alumno/a será responsabilidad de los padres o tutores legales.*

*De todos modos, cuando los alumnos y alumnas que gozan de esa libertad decidan quedarse en el recinto escolar, serán responsabilidad de la escuela y, en consecuencia, deberán respetar las normas y obedecer a las personas a cuyo cargo están. Asimismo, y como siempre, podrán asistir a la biblioteca.*

9. Ikasle batek edonolako erasorik jaso edo eragiten badu ikastetxearen ardurapean ez dagoenean, ikastetxean gertatu den falta batekin estuki erlazionatuta badago bakarrik hartuko du parte institutuak.

*Cuando un/a alumno/a sufra o provoque una agresión no estando bajo la responsabilidad del centro, el Instituto sólo intervendrá en caso de que la falta esté estrechamente relacionada con alguna otra ocurrida en el centro.*

10.- Medikazioa:

10.1.-Ikasleen medikazio ardura guraso edo tutore legalena da. Gurasoek, egoera dela medio, beharrezkoa aurreikusten badute tutorea edo zuzendaritza jakinaren gainean jartzea , informazioaz gain medikuaren agiria aurkeztu behar dute.

*La medicación de los alumnos y alumnas es responsabilidad de los/las padres-madres o tutores legales. En caso de que la familia considere conveniente informar al tutor/a deberá presentar el certificado médico correspondiente.*

10.2.- Ikastetxeak oinarrizko botikina dauka eguneroko txikikeriei aurre egiteko.

*El centro dispone de un botiquín básico para las pequeñas necesidades diarias.*



## 5.- Disziplina araubidea

Jarrera desegoki eta ezbeharren tipifikazioa arautegi nagusian dago.

*La tipificación de las faltas consta en la normativa general.*

1.- Hiru mailatan sailka ditzakegu jarrera desegokiak:

- Jokabide desegokia
- Bizikidetzaren aurkako jokabidea
- Bizikidetzan kalte larriak eragiten ditu

*Las faltas se clasifican en tres niveles: Conducta inadecuada, Conducta contraria a la convivencia, Conducta gravemente perjudicial.*

2.- Jarrera desegokien tipifikazioa eta ondorioz hartu beharreko neurriak hiru maila horien araberakoak izango dira.

*La tipificación y medidas correspondientes a las faltas se tomarán en función de dicha clasificación.*

3.- **Jokabide desegokia** kontsideratzen bada, ikasleei abisua emanen zaie eta gurasoei informazioa eman ahal izanen zaie.

*Si la falta se considera **conducta inadecuada** se dará un aviso al alumnado implicado y se considerará informar o no a sus padres y madres o responsables legales.*

4.- Jarrera desegokia **Bizikidetzaren aurkako jokabidea** kontsideratzen bada, ikastetxeko arduradunek ahalmena izanen dute ikastetxeak antolatzen dituen jarduera, ekintza osagarri eta eskolaz kanpoko jardueretan ikasleen parte hartzea bertan behera uzteko. Ahalmen hori ekintza burutzen ari den unean, ondoren zein aurrerago antolatzen den ekintza batean gauza daiteke.

*Si la falta se considera **contraria a la convivencia,** cualquier responsable del centro podrá hacer abandonar la actividad al alumnado implicado. Será posible, asimismo, prohibir la participación de dicho alumnado en posteriores actividades.*

5.- Jarrerak **Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituela** kontsideratzen bada, ikastetxeko Klaustro eta OOGari emanen zaie horren berri eta ikastetxetik kaleratzerainoko neurriak ezarri ahal izanen zaizkie ezbeharra burutu dutenei.

*Si la es **Conducta gravemente perjudicial** se notificará de ella al Claustro y al Consejo Escolar, pudiendo decidir hasta la expulsión del centro.*

## Ikastetxeak araututa duen prozedura:

### BIZIKIDETZA. JOKABIDE DESEGOKIAK



Araututako prozedura:

1. Ikasleari abisua emango zaio.

   *Se da parte al alumno/a.*

2. Ez bada zuzentzen, **bakarka hartu** eta berriro abisua emango zaio.

   *Si no se corrige, se le avisa personalmente de su postura y se le da un segundo aviso.*

3. Klaseko martxa behin eta berriro apurtzen badu kaleratua izango da (argi eta garbi gelditu behar da kasu honetan **Irakasle-gelara, zaintzako irakaslearengana**, joan beharko duela).

   *Si sigue entorpeciendo la marcha de la clase se le expulsa al aula de profesores, presentándose ante el/la profesor/a de guardia.*

4. Zaintzako irakasleak ***gertakarien koadernoa*** bete araziko dio (zaintzetako koadernoarekin batera dago).

   *Este/a profesor/a de guardia le hará rellenar el cuaderno de incidencias del Instituto para escribir su versión sobre lo ocurrido.*

5. Ikaslea kaleratu duen irakasleak INIKAN sartuko du kaleratze horren berri, gertatutakoa laburki azalduz, eta familia edo legezko tutorea telefonoz jarriko du jakinaren gainean.

*El/la profesor/a que ha espulsado al alumno/a explicará en INIKA lo ocurrido, y pondrá en conocimiento de lo acontecido a la familia o tutores legales*

6. Ikasketa buruak eta tutoreak gertakarien jarraipena egin dezakete koaderno zein INIKAren bidez.
   *Tanto los/las tutores/as como la Jefa de Estudios podrán hacer un seguimiento de lo sucedido en INIKA.*

### KALERATZE PILAKETA GERTATZEN DENEAN: JOKABIDE AURKAKOA

1. Ikasle batek hiru kaleratze edota gertakari izan ondoren, ikasketa buruarekin edota zuzendariarekin elkarrizketatuko da, eta eskutitz ofizial bat emango zaio gertatutakoaren berri etxean emateko. Ikasketa buruak aipatutako eskutitza prestatuko du. Tutoreak etxera deituko du gurasoei emango zaiela bermatzeko.
   *Un/a alumno/a que haya tenido tres incidencias se entrevistará con la Jefa de Estudios o el Director. Se le dará por escrito un documento donde constan los hechos sucedidos que deberá entregar en casa. El/la tutor/a llamará a casa para saber si el escrito se ha entregado.*

2. Laugarren kaleratzearekin egun bat klasetik kaleratua izango da, baina Institutuan. Familiari komunikatuko zaio aurreko prozedura bera jarraituz.
   *Con la 4ª incidencia el/la alumno/a será expuldaso del aula durante un día. La expulsión se hará cumplir dentro del Instituto. Por el procedimiento ya citado se le comunicará a la familia lo acontecido.*



3. Jarrera ez badu aldatzen eta jarraian beste kaleratze bat baldin badu, egun bat kaleratua izango da Institutura etorri gabe. Familiari komunikatuko zaio aurreko prozedura bera jarraituz.
   Si las incidencias persisten será expulsado del Instituto a casa por el periodo de un día. Se le comunicará a la familia por el mismo procedimiento escrito y aviso dl/la tutor/a.

4. Jokabide hauek guztiak kontuan hartuko dira baita ere beste era baterako neurriak hartzeko momentuan (irteerak, ikastetxeko ekintza osagarriak, …).
   Todas estas incidencias son acumulables y pueden tener su repercusión en las actividades extraescolares y complementarias del Instituto (salidas, viajes, actividades puntuales, celebraciones,…)

### JOKABIDE DESEGOKIEK IRAUNGIPENA DUTE

Araututako prozedura:

- Legeak diona jarraituko dugu.
  Estas medidas se ajustan a la ley.

- Honetaz ikasketa burua arduratuko da.

El/la jefa de Estudios es la responsable de ejecutar las mismas.

## 6.- Xedapen gehigarriak

1. Ikastetxeko irakasle eta langileek jokabide desegokiak zuzentzeko eskumena dute: beraien eskubide eta betebeharra da.
2. Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten ekintzak edota jarrerak zuzentzeko Zuzendariak du eskumena. Zuzendaritzak erabaki dezake kasu bakoitzean nor arduratuko den prozesuaz instruktore gisa.
3. OOGk eskumena du zuzendaritzak hartutako erabakiak berrikusteko. OOGk hala erabakitzen badu batzorde batek egin dezake hori.
4. Neurriak hartzeko epeak (Dekretuan azaltzen direnak) eskolako egunetan kontatzen dira.
5. Hartutako neurriak jakin arazteko ohiko bidea eta eraginkorrena erabiliko da (ikaslearen agenda, telefono deia…).
6. Bizikidetzaren kontrako gertaeren txostenak eta kalte larrien eragiten dituztenen txostenak zentroko bizitza akademikoaren bukaeran suntsituko dira.
7. Neurri zuzentzaile-hezitzaileak hartzeko prozeduran Dekretuan aipatzen direnak izango dira.



Data hauetan egin, berrikusia eta eguneratua izan da dokumentua:
OIARTZUN, 1998ko azaroaren 4an
OIARTZUN, 2006ko maiatzaren 31an
OIARTZUN, 2008ko maiatzaren 28an
OIARTZUN, 2009ko ekainaren 3an
OIARTZUN, 2012ko maiatzaren 23an
OIARTZUN, 2015ko azaroaren 12an
OIARTZUN, 2018ko martxoaren 3an
OIARTZUN, 2019ko urriaren 17an